

***Behin-behineko ebazpena, Hezkuntza Politiketako sailburuordearena, zeinaren bidez egiaztatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleek lortutako kompetentzia digitala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak xede horretarako antolatutako prestakuntza-jarduerak gauzatuta.***

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen kompetentzia digitala egiaztatzeko prozedura arautzen duen 2024ko azaroaren 29ko Hezkuntzako sailburuaren Agindua, irakasleen prestakuntzaren arloan eskumena duen organoak ofizioz egiaztatu ahal izango duela irakasleen kompetentzia digitala ezartzen du, xede horretarako aitortutako prestakuntza-jarduera gainditu dutenei.

Beraz, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorriz (2024ko abenduaren 3ko EHAA, 235. zk.) eta eman zaizkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

#### **EBAZTEN DUT:**

#### **Lehenengoa**

Ofizioz egiaztatzea Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen kompetentzia digitala, maila bakoitzean Irakasleen Kompetentzia Digitala lortzeko Hezkuntza Sailak ezarritako prestakuntza gainditu dutenei.

Zehazki, irakasleen kompetentzia digitalaren B1 eta B2 mailak egiaztatzen dira, prestakuntza-jarduera hauetan,

<b>IKASTURTEA</b>	<b>IKASTAROAREN KODEA</b>	<b>HASIERA DATA</b>	<b>AMAIERA-DATA</b>
2025/2026	2572BGNI44	2025/11/10	2026/05/31
2025/2026	2572BGNI45	2026/01/13	2026/03/08
2025/2026	2572BGNI46	2026/04/13	2026/05/31

## Bigarrena

1. Lortutako irakasleen konpetentzia digitalaren maila egiaztatzen duen dokumentua ematea. Heziguneko Langileen Atariko eremu pribatuan eskuratu ahal izango da.
2. Egiaztagiriak Estatuko lurralde osoan balio du.

## Hirugarrena

Hamar egun balioduneko epea ezartzea, Hezkuntza Sailaren atarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak aurkezteko. Behin betiko ebazpenaren bidez jakingo da erreklamazio horiek onartu edo ezeztatu diren. Behin betiko ebazpen hori behin-behineko ebazpena argitaratu eta gehienez hilabeteko epean argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den eguna,

Lucia Torrealday Berrueco  
Hezkuntza Politiketako sailburuordea